PORRONTXO
2013
JAIAK
ZATOZ
BADATOZ
FESTA
USAINA
TAILERRAK
POEMASKARADA
GAZTE
EGUNA
KALEJIRA
KIROLA
DANTZA
GUI
BADATOR
BADATORRENA
IGOERA
KARAOKEA
ENTZIERROA
ZEZEN-SUZKO
SUDURPUNTAN
ROCK
KAM
BROM
SARDINA
ERREAK
GUORLD
ALDARRIKAPENA
ERRAILAK
7-15

30 urtez elkarrekin amestean

Orain dela
hiru hamarkada,
PORRONTXO eta PORRONTXINA jaio
eta bi urteetara, Egiatar talde batek
mundu hobeago bat posible zeneko
ziurtasunarekin, proiektua martxan jarri zuen.

Lehen unetik jaiekin eskuz esku aritu
izan eta gero, esan daiteke,
PORRONTXINA, PORRONTXO eta ANTXETA-TTANTTAKUN
bide lagunak izan dira. Aisialdiaren bitartez...
konpartituz ondo pasatzen, parekidetasun
baloreak, euskara eta euskal kulturarekiko
maitasuna... aldarrikatuz.

Horregatik, Egiako familia handia
osatzen dugun guztioi, gure artean
egoterik ez dutenak gogoan,
ez utzi sekula amesteari...

GORA
EGIA!
ANTXETA TTANTTAKUN!
PORRONTXO JAIAK!

Jaiak

PORRONT

egiako

Irailak

Badator badatorrena
9 ASTELEHENA

16:00 Txikien gozamenerako, eta haundien inbiditarako **Navar Ekoizpenak**-en eskutik APAR FESTA, GOMING-a eta PUZGARRIAK Plaza Haundin. Donostia Kultura.

Gastroporrontxoa
10 ASTEARTEA

17:00 Haurrentzako MARGO TAILERRA eta ERAKUSKETA etxeko txikienentzat **Arratibel Estudioa**k lagunduta Plaza Haundin. Ez ahaztu! Pintzelak norberak etxetik ekarri! Eta gero txokolate bero bero eta goxo-goxoa.

18:30 Porrontxo jaietako V. PINTXO LEHIAKETA... eta dastaketa... trikitilariek alaituta Plaza Haundin.

18:30 **Haika Sortze Espazioa**ren eskutik MASKARA TAILERRA Plaza Haundin.

19:30 POEMASKARADA Plaza Haundin pilotaleku ondoan.

Ez da ez lehena
11 ASTEAZKENA

17:00 Haur eta Gazteentzako JOLASAK Plaza Haundin.

18:00 TALO TAILERRA egingo dugu ondoren trikitilariek alaituta Plaza Haundin.

18:30 PAPIROFLEXIA TAILERRA auzoko **Mikel Bakeriza** artistaren eskutik Plaza Haundin.

19:30 Auzoko **Sabur** eta **Beste** taldeen MUSIKA EMANALDIA Kata taberna parean.

Gora gu ta gutarrak!
12 OSTEGUNA

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK **Lagunak** txarangak gidatuta.

17:05 MARGOTU AURPEGIA jaitsiera baino lehen Karmengo ama kalean (60. zenbakiaren inguruan, Topagune parean).

17:30 HAURREN JAITSIERA Porrontxinarekin, Porrontxorekin, Buruhaundiekin eta **Lagunak** txarangarekin. Aupa gaztiak! (Eta gurasoak! Kar Kar).

18:00 "TXIKILINTXIN BAKEA EGIN" IKUSKIZUNA Plaza Haundin **Kiki, Koko eta Moko** pailazoekin. Donostia Kultura.

19:00 KARROZEN PRESTAKETA. Baten batek ez badu ulertu, agian alderantziz ere galde daiteke... Kalean gora behar bezala joateko KARROZEN TUNIN TAILERRA.

20:00 PREGOIA ETA TXUPINAZOA **Antxeta Ttanttakun**en eskutik bere 30. urtemugan!!!

20:01 KOADRILEN IGOERA. Karrozak hartu eta burua galdu gabe goazen kalean gora, Porrontxo, Porrontxina eta **Lagunak** txarangarekin batera.

20:30 **Izengabekoak** TXARANGA.

21:00 BATUKADAK hartuko dio lekukoa txarangari.

22:00 Koadrilen KARAOKEA eta KARROZEN TXAPELKETA Plaza Berriko karpan.

22:30 MUSIKA EMANALDIA Plaza Haundin **Laiotz** taldearekin.

22:30 Ohitura onak ez galtzeko **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.

01:00 KOADRILENTZAKO JOLASAK Plaza Haundin. Parte hartu!

13 OSTIRALA — Haur, gazte eta beteranoen eguna

11:00 HAURRENTZAKO ENTZIERROA
Tejeria kalean. Ez ahaztu egunkaria!
Gora San Fermin.

12:00 Erregaia sabelerako: Plaza Haundin HAMABITAKOA (12tan dalako) eta TRIKITILARIEK jarriko dute giroa, seguru.

12:00 "MENDIZALEAK" IKUSKIZUNA **Hipo eta Tomax** pailazoekin Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 Adinekoek ere goza dezaten TRIKITILARIAK Aldakoneako egoitzara joango dira. Gora aiton amonak! Onenak zeate!

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK, Porrontxo eta Porrontxina eta BOLINGA SOUND SYSTEM. Aurten **intsektu mozorro festa**.

18:00 **Antxeta-Ttanttakun**en eskutik JOLASAK HAUR eta GAZTEENTZAT Plaza Haundin.

19:30 **Trapu Zaharrak** taldearen "LA VIDA EN B" ANTZEZLANA Tejeria kalean. Donostia Kultura.

20:00 KOADRILA BETERANOEN KALEJIRA Plaza Haunditik auzoan zehar **Izengabekoak** txarangarekin.

20:00 Haurrentzat AFARI-MERIENDA Plaza Haundin (Pilotalekuaren ondoan). Txartelak Arkatza liburudendan salgai.

20:00 **Sabur** taldearen KONTZERTUA Kaktus taberna parean.

21:30 ZEZENSUZKOA Tejeria kalean. Harrapatzen bazaitu...

21:30 KOADRILA BETERANOEN AFARIA Tejeria kalean.

22:30 DULTZEMENEOA **Trakets** taldearekin Plaza Haundin.

23:00 KOADRILA BETERANOENTZAT GUATEKEA Tejeriako beheko partean.

00:00 BOLINGA SOUND SYSTEM auzoan zehar.

Gazte eguna
Aupa Gaztiak! (Eta puretillak!)

14:30 GAZTE BAZKARIA + MIKRO IREKIA Plaza Berrin.

17:30 "ATXURRAREN BILA" JOKUPOTEOA auzoan zehar.

20:30 Beste auzoetako Koadrilei ONGI-ETORRIA Atotxan **Egiako Gazte Asanbladar**en eskutik BOLINGA SOUND SYSTEM-en laguntzaz.

22:15 Gazte ekitaldia.

22:30 GAZTE KONTZERTUAK Plaza Berrin.

14 LARUNBATA — Egia Herrira eguna

08:00 **Lagunak** TXARANGA auzoan zehar.

11:00 "PANTXIKA ETA TXINPARTA EDERRA ZALAPARTA" IKUSKIZUNA **Zurrumurru** antzerki taldearen eskutik Gladys Enean. Eta ondoren... TXOKOLATE JATEA!

11:00 PALA FINALAK frontoian trikitilarien laguntzaz.

11:00 JOTAK Plaza Haundin.
Gora La Nabarra Maritimaaa!

12:00 Norbere argazkiak enmarkatzeko ARRAIN KAXATXOEN TAILERRA Gladys Enean auzoko **Laura San Juan** artistaren eskutik. Ez ahaztu etxetik postal tamainako argazki bat jaistea!

2013

ZERO ZABOR JAIA

INFO+ www.porrontxojaiak.org
porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

ZURE MUGIKORREAN

12:00 FUTBITO TXAPELKETAKO FINAL ERDIAK ETA FINALA kiroldegian.
12:30 "ESKUTITZAK" ANTZEZLANA Plaza Haundin.
14:30 KOADRILEN BAZKARIA aurten ere Plaza Haundin. (Bai, kafea eta kopa etxearen kontura!) + **La Jodedera**.
16:00 ESKUBALOI TXAPELKETA kiroldegian **Egia Eskubaloia**k antolatuta.
17:00 PIN PON TXAPELKETA Plaza Gorrin.
17:00 BURUHAUNDI ETA ERRALDOIAK **Kaña2kaña**ko trikitilariek alaituta.
17:00-20:00+22:00-00:00 DJ-ak eta **Lírica de Cerdos** taldea Plaza Berrin.
18:00 HAURRENTZAKO TAILERRAK **Txantxilipurdi** taldearen eskutik Tejeria kalean.
19:30 BETERANOEN JOKUAK Tejeria kalean.
20:00 SUDUR PUNTAN IKUS-ENTZUNEZKO LAGUNKETA, laburmetraien emanaldia eta sari banaketa Plaza Berrin **Sin Totxa**ren eskutik.
20:00 **Trebeska** taldearen DANTZALDIA Plaza Haundin.
20:00 PORRONTXOETAKO XVI. HERRI KROSA.
21:00 ZEZENSUZKOA Tejeria kalean.
21:00 **Inoreneroni** taldearen KONTZERTUA Kaktus taberna parean.
21:30 AFARIA Tejeria kalean.
22:00 **Iraunkorrak** TXARANGA auzoan zehar.
23:00 MUSIKA EMANALDIA **Haitzama** taldearekin Plaza Haundin.
00:00 KALEJIRA+AURRESKU HERRIKOIA Porrontxo eta Porrontxina eta zanpanzarrekin.
01:00 **Baldarrak** TXARANGA auzoan zehar.
01:00 ROCK KAM BROM!!! Auzoan zehar **K1D** kolektiboaren eskutik.

15 Euskal Jaia IGANDEA

07:00 GOSARIA Plaza Haundin. Menua: OILASKO ERREA (Esan Oilaskori turnoa daukala).
08:00 **Jatorrenak** TXARANGA Egian zehar. Non bestela?
11:00 Eta ondoren PILOTA FINALAK. Trikitilariak honea ere joango dira.
12:00 SAGARDO DASTAKETA eta BERTSOLARIAK Plaza Haundin.
14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin **Donosti-Gain, Ur Zaleak** eta **Arrano** elkarteek antolatuta.
16:30 **Egialai** taldea auzoan zehar.
17:00 Plaza Haundin HERRI KIROLAK, hau da hau sasoia!, Trikitilariek alaituta.
19:00 SARDIÑA ERREAK Plaza Haundin.
19:00 ERROMERIA **Hoiez** taldearekin Plaza Haundin. Presta zaitezte dantzarako!
20:00 **Jatorrenak** TXARANGA auzoan zehar.
21:30 Koadrilen KALEJIRA Porrontxina eta Porrontxorekin.
22:00 AZKEN TRAKA.
00:00 **Gui ar de guorld**.

GORA PORRONTXO JAIAK!